Agiri-mota / Tipo de documento:	**Osoko zuzenketa / Enmienda a la totalidad**
Data / Fecha:	2020-12-09
Nori zuzendua / Dirigido a:	BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente:	Susana García Chueca
Batzarkide taldea / Grupo juntero:	Euskal Sozialistak / Socialistas Vascos
11-C-34-874. 1945	

IZENBURUA / TÍTULO
Osoko zuzenketa, Mendebaldeko Saharako su-etenaren amaierari buruz EH Bildu batzarkide-taldeak eta Elkarrekin Gipuzkoa batzarkide-taldeak aurkeztutako ebazpen-proposamenaren ingurukoa.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK / MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES
Proposatu dugun testua zuzenagoa dela uste dugu

EKIMENA / INICIATIVA

Egitate horien aurrean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek:

- Zalantzarik gabeko elkartasun eta babesa adierazten diote saharar herriari, Nazio Batuen Gutuneko printzipioen arabera, eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak zein Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onetsitako ebazpenen arabera. Horien artean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak duela gutxi onetsitako 2548 ebazpena, 2020ko urriaren 30ekoa, honako hau dioena: berresten da aldeei babesa emateko konpromisoa irtenbide politiko justu, iraunkor eta elkarrekiko onargarria lortzeko, Nazio Batuen Gutunaren arabera, eta aldeek ildo horretan dituzten erantzukizunak eta papera behatuta.
- Azaroaren 13ko su-etena haustea gaitzesten dute, eta aldeen erantzukizuna eskatzen dute su-etenaren akordioa errespetatzeko eta negoziazio-prozesuari berriz heltzeko eta gatazkaren irtenbide baketsua aurkitzeko, zeinak saharar herriaren oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatu behar dituen.

- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari eskatzen diote bere gain har ditzala Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak, Genevako Hitzarmenen sinatzaileak direlako gatazkan dauden bi aldeak.

- Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioari (MINURSO) eta Nazio Batuei eskatzen diete eremuan segurtasuna bermatzeko, eta sahararren giza eskubideen zaintza bermatzeko, eta sustatzeko —luzamendurik gabe— Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justua, iraunkorra eta elkarrekiko onargarria.

- Espainiako Gobernuari eskatzen diote babesteko Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioaren (MINURSO) aginduaren luzapena, zeinak berebiziko garrantzia duen 1991ko su-etenaren zaintzarako. Halaber, erregutzen diote eskatzeko —luzamendurik gabe— izenda dezatela NBEko Mendebaldeko Saharako ordezkari berezi berria.

- Espainiako Gobernuari eskatzen diote handiagotzeko ekintza humanitarioa eta saharar herritarrekiko lankidetza, baldintza oso txarretan ari direlako bizirauten errefuxiatuen kanpamentuetan, ekintzak eta lankidetza handituz muturreko bizi-baldintza horiek arindu daitezen eta elikaduran, heziketan eta ostatuan herritarrek dituzten beharrak estal daitezen.

- Euskal herritarrak gonbidatzen dituzte Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko Euskadiko Sahara Mugimenduak deitutako mobilizazioetan parte hartzera.

Bozeramailearen sinadura / Firma portavoz
Susana García Chueca
EUSKAL SOZIALISTAK BATZARKIDE TALDEA
GRUPO JUNTERO SOCIALISTAS VASCOS